Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

MP/ig

FA-IOH-057/20
15-IN

# FORU AGINDUA - ORDEN FORAL

Donostia, 2020ko maiatzaren 25a
San Sebastián, a 25 de mayo de 2020

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza, hainbat plan eta lankidetza esparruren barruan, azken urteotan jarduketa desberdinak burutzen ari da energiaren arloan, bultzatuz eta sustatuz aurrezpen energetikoa eta energia berriztagarrien aprobetxamendua Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikinetan.

La Dirección de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, está llevando a cabo en los últimos años diferentes actuaciones en materia energética encaminadas a incentivar y promover el ahorro energético y el aprovechamiento de las energías renovables en los edificios de la Diputación.

Ildo horretan, 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, 12. artikuluan, "Kontsumoen kontrola" izenekoan, honako hau adierazten du: *"Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, energia elektrikoaren kontagailuak eduki beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikin eta instalazio guztiek, eta kontagailu horiek gai izan beharko dute ordubete baino gutxiagoko denbora-tartean karga-kurba transmititzeko, erregistratzeko eta teleneurketa egiteko. Kontagailuen bidez lortutako informazioa eskuragarri egongo da, gutxienez egunero eta modu zentralizatuan eraikin eta instalazio guztietarako."*

En este sentido, según la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, en el artículo 12 "Control de consumos" expone que: "*En el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la presente ley, todos los edificios y las instalaciones de cada administración pública vasca deberán disponer de contadores de energía eléctrica con capacidad de telemedida, de registro y de transmisión de curva de carga en periodos inferiores a una hora. La información obtenida por los contadores estará disponible, al menos diariamente, de manera centralizada para todos los edificios e instalaciones*"

Irtenbide guztiak batera aztertuta, erabaki da energia sortzeko sistema hobetzea, eta legedi hori betetzeko asmoz, foru eraikinetan energia kontsumoak kontrolatzeko sistema bat instalatzea erabaki da.

Una vez analizadas conjuntamente las diferentes soluciones, y con el fin de cumplir esta legislación, se ha decidido instalar un sistema de control de los consumos energéticos en los edificios forales.

Obrak gauzatzeko guztizko kostuak 129.647,79 euroko aurrekontua dauka (BEZa barne)

El coste total de ejecución de las obras está estimado en 129.647,79 € (IVA incluido).

Halaber, espediea izapidetzeko azaorak 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratuen Legearen 159 artikuluak arautztako prozedura ireki sinplifikatua aplikatzea xedatu da, kontratua gauzatzeko oinarri diren proiektuaren zuinketa eta baldintza administratibo berezien agiria jasoz eta dagokion gastuaren fiskalizazioa eginez.

Asimismo, se establece la tramitación del expediente por el procedimiento abierto simplificado del artículo 159 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, reguladora de los Contratos del Sector Público, que comprende el replanteo del proyecto y el pliego de cláusulas administrativas particulares a las que habrá de ajustarse la ejecución del contrato y la fiscalización del gasto correspondiente.

Aurreko guztiaren arabera, eta xedapen hauek ematen dizkidaten eskumenak erabiliz: 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa, 40.5 a) artikulua; eta 22/2016 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa, foru diputatu honek,

En virtud de cuanto antecede, este Diputado Foral, en uso de las facultades conferidas por el artículo 40.5 a) Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en relación con el Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas,

## EBAZTEN DU

**Lehenengo.-** Onestea **FORU ERAIKINETAN ENERGIA KONTSUMOAK KONTROLATZEKO SISTEMA INSTALATZEKO OBRAK** kontratatzeko espedientea **(2020/27-IE-LS)**. Lizitazio aurrekontua 107.146,94 eurokoa da, eta zenbateko horri gaur egun dagokion BEZa (% 21) gehitu behar zaio, hau da, 22.500,86 euro, guztira 129.647,79 euro. Obra gauzatzeko epea lau hilabetekoa da.

**Bigarren**.- Onartzea baldintza administratibo berezien agiria eta kontratazio espedientea, eta abian jartzea prozedura ireki erraztuaren bidezko esleipen prozedura.

**Hirugarren.-** Kontratazio honetarako 129.647,79 euroko gastua baimentzea, aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

1.1010.130.610.03.01.2020: 99.572,82 €
1.1010.130.662.00.01.2020: 30.074,97 €

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete, interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere partikularrek, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatuari, HILABETEKO EPEAN, jakinarazpenaren biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

## RESUELVE

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación de las **obras de LA INSTALACIÓN DE UN SISTEMA DE CONTROL DE LOS CONSUMOS ENERGETICOS EN LOS EDIFICIOS FORALES (2020/27-IE-LS)** cuyo presupuesto de licitación asciende a la cantidad de 107.146,94 euros, al que debe añadirse el IVA correspondiente por un importe de 22.500,86 euros (21 %), total 129.647,79 euros, IVA incluido, y con un plazo de ejecución de obra de cuatro meses.

**Segundo**.- Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y el expediente de contratación y disponer la apertura del procedimiento de adjudicación por procedimiento abierto simplificado.

**Tercero.-** Autorizar un gasto de 129.647,79 euros para la presente contratación con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1.1010.130.610.03.01.2020: 99.572,82 €
1.1010.130.662.00.01.2020: 30.074,97 €

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastian, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante este Diputado Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

**INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA,**
**EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS,**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

**Sin.: / Fdo.: José Ignacio Asensio Bazterra**